

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko urtarrilaren 6tik 10erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI ZERBITZUAK / KONPOSATUA



Datuaren analisisia

PMI konposatuaren arabera, Euroguneko sektore pribatuaren jarduerak pixka bat hobera egin zuen abenduan, aurreko hileko 50,6 puntuetatik 50,9ra igo baitzen. Azken lau hilabeteetan bere mailarik handienera igo bada ere, indizea 2013ko lehenengo sei hilekotik eman den mailarik baxuenetako batean kokatu zen. Inkesta erantzun zuten herrialdeei dagokienez, Irlandak (53) eta Espainiak (52,7) izan zuten jarduera pribatuaren hazkunderik handiena, azken sei urteko eta zortzi hiletako maximoak lortuz, hurrenez hurren. Alemaniako datua azken hiru hilabeteetako minimora jaitsi zen (PMI konposatua: 52 puntu), eta Frantzia, aldiz, 50,2 puntutara igo zen jarduera. Italia 50eko mugaren azpitik kokatu zen bigarren hilabetez jarraian, ia urtebetean izan duen emaitzarik kaskarrenarekin (49,3 puntu). Urteko azken hilabetean, indarrean jarraitu zuen manufaktura eta zerbitzuen sektorearen arteko portaera-aldeak. Izan ere, zerbitzuen sektoreko indizea lau hiletako maximora igo zen Eurogunean, azaroko 51,9tik 52,8 puntutara, hain zuzen ere, 52,4ko atariko datuaren gainetik.

Adierazlearen azalpena

PMI Konposatuaren indizeak erosketen profesionalei eta fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreko enpresetako exekutiboek hileroko bidaltzen zaizkien galdetegiaren erantzunak ditu oinarri. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI EUROGUNEA



Datuaren analisisia


Euroguneko urte arteko inflazio-tasa % 1,3an kokatu zen joan den abenduan, azaroko irakurketa baino hiru hamarren gorago eta bere mailarik handiena joan den ekainetik, eta, beraz, Europako Banku Zentralak (EBZ) aurreikusitakoa baino hamarren bat handiagoa izan zen, Eurostatek aurreratutako datuen arabera. 2019ko azken hilabeteen izandako inflazioaren gorakada energiaren prezioaren ekarpen positiboaren ondorioz gertatu zen, % 0,2 igo baitzen, aurreko hilabeteen urte arteko % 3,2 jaitsi ondoren, bai eta elikagai freskoak % 2,1 garestitu zirelako ere, azaroan baino hiru hamarren gehiago. Zerbitzuen prezioa, bestalde, urte arteko % 1,8 igo zen abenduan, azaroan baino hamarren bat gutxiago. Espainiaren kasuan, inflazio harmonizatua urte arteko % 0,8an kokatu zen abenduan, eta prezioen diferentziala, beraz, Eurogunean baino puntu erdi handiagoa izan zen. Euroguneko azpiko inflazioa % 1,3an mantendu zen.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM ZERBITZUAK



Datuaren analisisia


Zerbitzuen ISMa 55era igo zen azaroko 53,9tik, 54,5era iristea espero zenean. Kontsumitzaileak egindako gastu sendoak, lan-merkatu indartsuak eta soldaten igoera moderatuak adoretuta, zerbitzuen sektorea eta ekonomia oro har bultzatzen ari da.

Adierazlearen azalpena

Manufaktura ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPlaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisisia

Estatu Batuetako ekonomiak nekazaritzakoak ez diren 145.000 enplegu sortu zituen abenduan, azaroko 256.000 eta espero ziren 160.000 lanpostuen aldean, Eguberri garaiko kontratazioek eta osasun sektoreak bultzatuta. Abenduan, Ipar Amerikako langabezia-tasa % 3,5ean mantendu zen, eta, beraz, 1969tik izandako mailarik onenean jarraitu zuen. Orduko batez besteko soldatek % 0,1eko gorakada txiki bat izan zuten abenduan, azaroko % 0,3ko igoeraren ondoren. Abenduan, azken 12 hilabeteetako soldatek % 2,9 egin zuten gora, azaroan izandako % 3,1eko gorakadaren aldean.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilero argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: CAIXIN PMI ZERBITZUAK / KONPOSATUA



Datuaren analisisia

Zerbitzuen sektoreko jarduerak behera egin zuen abenduan, PMI Caixin adierazle aurreratuen arabera, espero baino datu okerragoa izan baitzuen (52,5, espero zen 53,2aren eta aurreko hileko 53,5aren aldean). Horrek eta manufakturen PMI indizeak, ordurako datu negatibo bat izan zuenak, (51,5, espero zen 51,6aren eta aurreko hileko 51,8aren aldean), PMI konposatua 53,2tik 52,6ra jaistea eragin zuen.

Adierazlearen azalpena

PMI Konposatuaren indizeak erosketen profesionalei eta fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreko enpresetako exekutiboek hileroko bidaltzen zaizkien galdetegiaren erantzunak ditu oinarri. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den

seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: MANUFAKTUREN/ZERBITZUEN PMI



Datuaren analisisia

PMIaren arabera, Japoniako manufaktura-jarduera azaroan baino erritmo biziagoan murriztu zen abenduan, atzerrian eta herrialdean bertan eskariak izandako beherakadaren aurrean enpresek duten presioa agerian jartzen duena. Manufakturen PMI indizeak 48,4 puntu egin zituen behera, azkenekoz urrian lortu zituen duela hiru urte baino gehiagoko minimoak berdinduz. Datua beherantz berrikusi zen, atariko adierazleak 48,8ko maila erakusten baitzuen, azaroko 48,9 puntuen aldean. Zerbitzuen sektoreko adierazle aurreratua ere 49,4 puntuetaraino egin zuen behera, 50,6ko datu aurreratuaren eta aurreko hileko 50,3aren aldean. Hortaz, adierazle konposatuaren irakurketa aurreko hileko 49,8tik 48,6ra jaitsi zen.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
01/13	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 1.3
01/14	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	¥101.5b
01/14	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2.4
01/14	Txina	Urte arteko esportazioak	% 2.9
01/14	Txina	Urte arteko inportazioak	% 9.6
01/14	Txina	Balantza komertziala	\$45.70b
01/15	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.4
01/15	Espainia	Urte arteko KPIa	% 0.8
01/15	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 1.5
01/15	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 1.0
01/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	22.0b
01/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	3.6
01/15	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
01/16	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.5
01/16	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.3
01/16	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	217k
01/17	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 7.9
01/17	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.9
01/17	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.0
01/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.3
01/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 1.1
01/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.1
01/17	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	99.3
01/17	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	115.0
01/17	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	89.0

BURTSA:

AEBetan, burtsek balantze positiboarekin amaitu zuten astea, eta indize nagusiak maximo historikoetan egon ziren. Asiako errenta aldakorrek ere hobera egin zuen, eta balantzea mistoa izan zen Europan; Eurostoxx 50 indizeak % 0,43 egin zuen gora. Ibex indizeak, aldiz, -% 0,76 egin zuen behera, etxeko bankak bultzatuta. Gobernuko presidentearen inbestidura arazorik gabe burutu bazen ere, inbertitzaileek Gobernu berriak bankuetan egin ditzakeen zerga-aldaketen inguruan duten errezeloak sektorea zigortu zuen. Tentsio geopolitikoek ere inbertitzaileen arreta piztu zuten, asteko lehenengo egunetan batez ere. Iranen eta AEBen arteko gatazka berpiztu egin zen Iranek Estatu Batuek Iraken dituzten bi hegazkin-baseri misilekin eraso egin zienean. Iranek joan den astean AEBek egindako erasoari emandako erantzun hori, ordea, mugatua izan zen, kalte materialekin baina biktimarik gabe. Gainera, gero, prentsurrekoan, Trumpek gerra-ekintza berririk egingo ez zuela adierazi zuen, eta neurri samurragoen alde egin zuen, zigor ekonomikoak ezarriz. Iranek, bestalde, ekintza militarrek etengo zituela iragarri zuen. Bada, burtsek baretzera egin zuten, eta tonua hobetu zuten asteak aurrera egin ahala, egoera geopolitikoa bigarren planoan geratu zen arte. Datu makroekonomikoei dagokienez, Europan, PMI konposatuak hobera egin zuen abenduan, zerbitzuen sektoreari esker, eta urteko azken hileko KPIa azarokoa baino hiru hamarren handiago izan zen. AEBetan, Zerbitzuen ISMa uste baino gehiago igo zen, eta enpleguaren txosten ofizialak aurreikusitakoa baino datu apur bat apalagoak eskaini zituen.

ERRENTA FINKOIA:

Egoera geopolitikoaren baretzeak, AEBen eta Iranen arteko eskalada militarren gaineko beldurra arindu zenean, gobernuen kurben tentsionamendu orokorra eragin zuen, baina mugimendu handirik gabe. Europan, bundak + 5 op egin zituen gora, eta Europako periferikoek arrisku-primak estutu zituzten. Espainiako bonuak, berriz, 64 op eskuratu zituen, eta 10 urterako tasak % 0,44an amaitu zuen astea. AEBetan, epe bereko errentagarritasuna +3 op igo zen, % 1,82raino. Kredituak, aldiz, diferentzialak murriztu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarra indartu egin zen, maila erantsian, gainerako dibisen aurrean. Yenak (Iranen erasoaren ondoren aterpe-dibisa izan zen) balio-igoera hori zuzendu zuen geroago, Iranen eta AEBen arteko tentsioak baretu zirenenean. Euroa pixka bat ahuldu zen liberaren aurrean, nahiz eta Ingalaterrako Bankuak interes-tasen gaineko beherazko joera bat hartuko duen ahultasun ekonomikoak jarraituz gero. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioa -% 5,32 jaitsi zen astean, 65,29 \$/upela mailaraino, Ekialde Ertaineko ezegonkortze dosi txikiagoengatik. Hala ere, hilaren 9an, Iranen erasoaren ondoren, hegazkortasun handia izan zuen, 71 dolarretik gorako egun barneko maximoekin. Urreak, halaber, antzeko mugimendu bat izan zuen egun horretan, eta 1562,34 \$/ontza mailan amaitu zuen astea.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. 2020 %
MSCI WORLD (Local)	1.820,71	0,84	1,16
IBEX 35	9.573,60	-0,76	0,26
DJ EURO STOXX 50	3.789,52	0,43	1,18
DJ STOXX 50	3.433,74	0,14	0,90
FTSE	7.587,85	-0,45	0,60
S&P 500	3.265,35	0,94	1,07
Dow Jones	28.823,77	0,66	1,00
NASDAQ	9.178,86	1,75	2,30
NIKKEI 225	23.850,57	0,82	0,82
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	62.526,79	0,59	1,72
MEXBOL	44.660,33	0,08	2,57
BOVESPA	115.503,40	-1,87	-0,12
SHANGHAI	3.240,07	0,27	1,38
Errusia Rts Mosku	1.614,69	3,23	4,25

Gobernuen tasak	Maila	% Aldaketa astean	Ald 2020
ALEMANIA 2 URTE	-0,60	0,02	0,00
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	0,00	0,01
AEB 2 URTE	1,57	0,05	0,00
ALEMANIA 10 URTE	-0,20	0,05	-0,01
ESPAINIA 10 URTE	0,44	0,06	-0,03
AEB 10 URTE	1,82	0,03	-0,10
ALEMANIA 30 URTE	0,31	0,06	-0,04
ESPAINIA 30 URTE	1,34	0,07	0,01
AEB 30 URTE	2,28	0,03	-0,11
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	43,12	-1,51	-0,94
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	205,10	-3,55	-1,27

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2020
Petrolio (Brendt)	65,29	-5,32	-1,70
Urrea	1.562,34	0,65	2,97

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2020
Dolarra / Euroa	1,11	-0,35	-0,83
Yena / Euroa	121,68	0,90	-0,01
Libera / Euroa	0,85	-0,18	0,63

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.